Ipuin tailerra

Ikasgai honen helburua ikasleak ipuingintzaren oinarriak ezagutzea da. Alde batetik, genero literario horren ezaugarri nagusiak ezagutzea, bestetik, eta ikasleen gaitasunaren arabera, genero horretan euskaraz praktikatzea. Hala, ipuingintzaren historiako ipuin molde ezberdinak aztertuko dira, denborarekin nola garatu diren ikusiz. Horretarako, euskal literaturaren historia hartuko da oinarri, eta hala, batez ere euskarazko autoreekin egingo da lan. Alegia, ikasgaiak ere balio izango du euskal ipuingintzaren inguruan gehiago ezagutzeko. Ikasgaia egiteko ez da beharrezkoa euskara maila altua edukitzea, irakurmen eta entzumen maila oinarrizko bat edukitzearekin aski da. Horregatik, idatzizko testuen sormena ikasgaiaren hautazko jardueren barruan sartzen dira, ikasle bakoitzaren maila eta gogoaren arabera.

Edukiak

1. Alegiak eta ipuin modernoa
    a. Ezaugarriak
    b. Ezberdintasunak
2. Bizenta Mogel, lehen euskal idazle emakumezkoak
    a. Sarrera
    b. Alegiak
3. Kirikiño
    a. Sarrera
    b. Ipuinak
4. Martin Ugalde
    a. Sarrera
    b. Ipuinak
5. Pott banda eta ipuingintzan
    a. Bernardo Atxaga
    b. Joseba Sarrionandia
6. Ipuingintza garaikidea
    a. Iban Zaldua
    b. Eider Rodriguez
    c. Uxue Apaolaza

Ebaluazioa

Gainontzeko ikasgaietan bezalaxe, klaseko bertaratzeetan oinarrituko da ebaluazioa. Ikasgaia gainditzeko eskolen %80etara joan behar da gutxienez. Ikaslearen parte-hartze eta interesa ere kontuan hartuko da. Eskolan egingo diren idazlan eta bestelakoak hautazkoak izango dira baina kalifikazioa igotzeko balioko dute.

Bibliografia

Aldekoa, Iñaki (2008). *Euskal literaturaren historia*. Donostia: Erein.

Apaolaza, Uxue (2005). *Umeek gezurra esaten dutenetik*. Donostia: Erein.

Atxaga, Bernardo (2013). *Obabakoak*. Donostia: Erein.

Hernandez Abaitua, Mikel (2011). *Narrazio tailerra*. Donostia: Erein.

Kirikiño (1985). *Abarrak*. Donostia: Elkar.

Mogel, Bizenta (1991). *Ipui onak*. Donostia: Euskal Editoreen Elkartea.

Rabelli, Alvaro (2016). *Egungo euskal ipuingintzaren historia*. Leioa: EHU.

Rodriguez, Eider (2017). *Bihotz handiegia*. Zarautz: Susa.

Sarrionandia, Joseba (2011). *Narrazio guztiak*. Donostia: Elkar.

Ugalde, Martin (1985). *Hiltzaileak*. Donostia: Elkar.

Zaldua, Iban (2010). *Ipuinak: antologia bat*. Donostia: Erein.